

BERMEO / Euskarazko literatura erotikoaren jaia antolatu dute

'Uda erotismoz beterik dator/Euskaraz' izenarekin hilaren 31n Talan izango da jaialdia, 12:00etatik 14:00etara bitartean; ekimen ugari antolatu dituzte.

Maite Zabalondo

'Uda erotismoz beterik dator/ Euskaraz izenburupean, euskarazko literatura erotikoaren lehenengo jaialdia izango da Bermeon hilaren 31n.

Jaialdia Talan egingo dute, 12:00etan hasi eta 14:00etara bitartean. Egun horretarako antolatzaileek egitarau zabala prestatu dute, hala ere, egitaraua oraindik guztiz zehaztu barik dute. Antolatutako ekimenen artean, besteak beste, irakurraldiak, musika zuzenean, sexu-jostailuen erakustaldiak eta jan-edan erotikoen dastatzea izango dira.

'Literotura bildumako egileak

Irakurraldien atalean, erotismoaren generoa landu duten euskal idazle garaikideetako gehienak jaialdian izango dira. Hain zuzen ere, Txalaparta argitaletxearen 'Literotura' bildumako hamalau liburuetako pasarteak ozen irakurtzera etorriko dira liburu horien egileetako batzuk. Bilduma horretakoak ez ezik, beste edozein liburutako pasarteak ere irakurri ahalko dira, egilea jaialdira agertuz gero.

Euskarazko pasarteez gain, beste zenbait hizkuntzatan idatzitako pasarteak ere irakurriko dituzte. Hain zuzen, Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofizialean irakasten dituzten alemanezko, frantsesezko eta ingelesezko literatura erotikoaren laginak irakurriko dituzte, bakoitza bere hizkuntzan. Irakurketak egiten diren bitartean, zuzeneko musika izango da; musika akustikoa joko dute ahotsari laguntzeko, baina ahotsari indarra emanez.

Guneka

Antolatzaileek irakurraldiak banatu egingo dituzte zenbait gunetan. Euskarazkoak bat baino gehiago izango dira, entzuleen eta egilearen arabera; beste hizkuntzek, oster, gune bana izango dute.

Hortaz, entzuleek generoen eta hizkuntzen artean hautatzeko aukera ere izango dute.

Bestalde, irakurraldiekin batera zenbait artista plastiko izango dira, giroak eragiten diena irudietara eta marrazkietara eramango dutenak. Irakurraldiak ardatz hartuta, erotismoarekin lotutako hainbat ekimen izango dira, beraz. Eta jaialdiaren amaierarantz jan-edan afrosiakoak egongo dira.

Horrez gain, liburuak oparituko dituzte. Ordu biko egitaraua antolatu dute, baina jaialdia luzatu daiteke bertaratzen direnek euren sormena eta irudimena erabiliz, jai giroan jarraitu gura badute.

Gutxi gorabeherako egitaraua eginda badute ere, jaialdiaren eguna hurbildu ahala antolatzaileek egitarauaren berri zehatzago emango dute. Orduan zehaztuko dituzte nortzuk izango diren jaialdian parte hartuko duten idazleak, musikariak eta artistak.

Hainbat dira jaialdiaren antolakuntza lanetan ari direnak: Bermeoko Udal liburutegia, Bermeoko Udalaren Euskara Zerbitzua, Berbalagun, Bermesex, Gazte Informazio Zerbitzua, Bermeoko Hizkuntza Eskola Ofiziala, Txalaparta argitaletxea, Edorta Jimenez idazlea eta beste hainbat lagun.

Horrez gain, maiatzean erotismo edo sexuaren inguruan zenbait ekimen izango dira; besteak beste, piropo lehiaketa, liburu gida liburutegian, Luma dendan erakustokia apainduko dute eta hilabete honetan zehar ekimenera batzen diren guztien ekarpenak.

Jaialdi horren bitartez herritarren parte-hartzea bultzatu gura dute; herriko ume, gazte zein nagusiak jaialdian parte hartzera animatuz.